

CONFECIONES

YOSTE, s. c. i.

BARRIO ALCIBAR — OYARZUN (Guipúzcoa)

0.3.9.1/90.

ESPECIALIDAD EN LA

CONFECCION DE

CHAQUETAS DE LANA

Rvdo. D. José M^o Arizmendiarrrieta

Parroquia de Mondragón

MONDRAGON (Guip.)

Agur adixkide:

Oiartzun'en neska talde bat alkartuta koperatiba aldetik zerbait egin nairik gabilta. Orañ dala urte bete asi gihan asmo auekin, lokal bat errentan artu, lanazko jantziak egiteko makina batzuek ere nola bait artu ta jarraitu degu poliki, poliki Confecciones "Yoste" S.C.I. izenarekin.

Urte bate luze onetan gora-bera batzuek izan ditugu; ofizioaren jabe egin behar zan ta orrekin zetorren lenengo jantziak ondo ez ateratzea; lana gutxitxo zala, diruakin nola konpondu, ta abar...

Gaur egun naizta orañdik era ontako arazo batzuek izan, ba dirudi pauso bat eman degula ta aurreña begira ametsetan gabilta.

Amets oietako bat jakina, koperatiba giro orretan geitzen joatea da; espiritu ori gure inguruan sortzia,

Au pixka bat sakontzen asten geranian ixilik gelditzen gera, konturatzen gera naiz ta gure asmo guztia koperatiba sortzia izan, gure barruak oso utsak arkitzen dirala gai onetan. Al gegin bezela koperatiba bat montatu degu ta orañ zer?. Zer da koperatibaren eginkizuna gure taldean? taldetik kanpora? Nola jarraitu koperatiba onen linea?. Era ontako galdera egiten ditugu.

^{erko} Au guztia ikusirik erritar batzuekin itzezin gendun ta liburu aldetik zerbait ba dagola esan ziguten, ondoren zure direkzioa eman ziguten esanaz, zuk koperatiba aldetik asko egin dezula ta bide ori ondo ezagutzen dezula.

Besterik gabe lerro batzuen bidez zuregana inguratzea erabaki degu, laguntza eske. Oraingoz nai deguna da: Koperatibataz liburu batzuek ezagutzia.

Beraz, mesede aundi bat egingo zenduke era orretako liburu batzuen lista bialduko bazenduke.

Besterik gabe, aurrez eskertuaz, zure erantzunaren zai gelditzen gera.

Amelma 'tar ko'k.